

2025 DEIALDIA

FECYT-I+P Deialdia

EPEA: 2025/07/01etik 17/09/2025 13:00etan

Deialdiaren helburua:

I+P-ren deialdiaren helburua da ikerketa eta berrikuntza sustatzen duten proiektuak finantzatzea, eta kudeaketa publikoan aholkularitza zientifikoa ematea, ebidentzia zientifikoa erabiliz politika eraginkorragoak lortzeko.

Proiektuen iraupena:

Proiektuak gehienez 24 hilabetez garatu beharko dira, dirulaguntza emateko ebazpena ematen den egunetik zenbatzen hasita (2026ko martxoan aurreikusita dago).

Proiektuen kategoriak:

Jarduera horiek hurrengo kategoria batean sartuta egon behar dute:

- A) Berrikuntza publikoko proiektuak politika publikoak formulatzeko prozesuan, diseinua hobetzeko ebidentzia berriak lortzera bideratuta.
- B) Administrazio publikoen berrikuntzaren kultura areagotzera bideratutako proiektuak, komunitate zientifikoaren eta administrazio publikoen artean ezagutza transferitzeko eta aholkularitza zientifikoa emateko programa eta jardueren bidez.

Finantziazioa:

Deialdi honen baitan emandako diru-laguntzen bidez finantzatu ahal izango da, gehienera, aurkeztutako proiektuaren **aurrekontu osoaren % 90. Eskaera bakoitzak, gehien dela, 100.000 euro** jaso ahal izango ditu A) kategorian eta 25.000 euro B) kategorian.

Aurrekontua:

Diru-laguntza izan dezaketen kontzeptuak (deialdiaren oinarriaren 7. Artikulua):

- Proiektuan jardungo duten langileen kontratazioa
- Bidaia gastuak eta dietak
- Material suntsikorra eta hornigaiak
- Aholkularitza gastuak, hezkuntza jarduerak prestatzeko gastuak, proiektuaren ebaluazioa, zabalkunde eta argitalpen gastuak
- Aretoen alokairua, konferentzien antolaketa, jarduerak

Zeharkako kostuak ezin dira finantziatu.

Ikertaldeko kideek bete beharreko baldintzak:

Ikertzaile nagusi batek aurkeztu beharko ditu proiektuak, eta A) kategorian doktore-titulua izan beharko du.

Lantaldeak gutxienez kide bat izango du, proiektuaren arduradunaz gain.

Lantaldeko kide izango dira proiektua gauzatzearekin zuzenean lotutako zereginak egiten dituzten pertsonak, fase guztietan esku hartuta. Ez dira lantaldean sartzen jarduera bat egiten unean-unean esku hartzen duten hornitzaileak edo kanpoko laguntzaileak.

Arduradunak eta lantaldeko kide batek, gutxienez, funtzionario-, estatutu- edo kontratu-lotura izan beharko du UPV/EHUrekin, eskabidea aurkezten denetik proiektua amaitzen den arte, deialdian parte hartzeko aukera emango dion kontratu-modalitate batekin.

Proiektu-arduradun batek proposamen bat baino gehiago gidatu dezake. Kasu horretan, dedikazioa partziala izango da proposamen bakoitzean.

Pertsona batek proposamen bat baino gehiagoko lantaldean parte har dezake. Kasu horretan, dedikazioa partziala izango da proposamen bakoitzean.

Eskaerak aurkezteko era eta epea:

Eskaera **bide elektronikotik** aurkeztuko da, plataforma honen bidez:
<http://www.gestion.convocatoriaip.fecyt.es/>

<https://www.gestion.convocatoriaip.fecyt.es/Publico/Bases/Bases.aspx> eta
<https://www.gestion.convocatoriaip.fecyt.es/Publico/Logotipos/Logotipos.aspx> helbide elektronikoetan dokumentazioa kontsulta dezakezu: deialdiaren testua, eskabideak aurkezteko gida, ohiko galderak, eskabide-formularioen adibideak eta memoriak.

UPV/EHUko eskaerak aurkezteko prozedura:

Bakarkako proposamenek 2025eko irailaren 10a baino lehen eta proposamen koordinatuek erakunde koordinatzailea UPV/EHU bada, 2025eko irailaren 3a baino lehen hurrengo dokumentazioa:

- Proiektuaren memoria
- Aurrekontua
- Parte hartzen duen ikerketa-taldea. UPV/EHUtik kanpoko langileek parte hartzen badute, jatorrizko erakundearen baimena bidali beharko da.
- Administrazio publiko baten proposamena babesteko **nahitaezko gutuna**, proiektuan laguntzeko konpromisoa hartzen duena.
- Fecyt I+Pk estaltzen ez duen aurrekontua finantzatzeko konpromisoa
- Lankidetzakonpromisoa, proposamen koordinatuen kasuan

GARRANTZITSUA: sistema elektronikoaren bidez eskaera-formularioa eta memoria teknika bete ondoren, ekintzaren arduradunak behin betiko eskaera egin beharko du, izena emateko ezarritako epearen barruan. Ekintzaren arduradunak eskaera behin betiko aurkeztu ondoren, erakunde eskatzailearen legeko ordezkariak dokumentuen sinadura elektronikoa egin beharko du. Formularioaren eta gainerako dokumentazioaren sinadura elektronikoa eskabideak aurkezteko aldi osoan egin ahal izango da, eta erakunde eskatzailearen **legeko ordezkariak epe hori amaitu baino lehen elektronikoki sinatu baditu bakarrik joko dira eskabideak behar bezala aurkeztutzat**. Eskabideak aurkezteko epea ixtean legeko ordezkariak elektronikoki sinatu ez duen eskaera oro ez aurkeztutzat joko da.

UPV/EHUn harremanetarako kontaktua:

Posta elektronikoa: convocatoriasestatales.dgi@ehu.es

FECYT I+Pen harremanetarako kontakuta:

Telefonoa: 00 34 91 425 09 09

Posta elektronikoa: convocatoriaip@fecyt.es

Deialdiaren inguruko informazio orokorra:

<https://convocatoriaip.fecyt.es/>

Rudeaketarako web orria:

<https://www.gestion.convocatoriaip.fecyt.es/Publico/Index.aspx>